

## EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASARI BURUZKO ZERTZELADA BATZU

Inkesta zuzenen bidez ahozko hizkuntza bere status dialektalean aztertzen duen ikerketa linguistikoa dugu hizkuntz atlasa.

Hizkuntz atlasak mende honen hasieran sortu ziren Gillieron-ek «Atlas Linguistique de la France» sortu zuenean.

Oinarrian hizkuntz atlasak eremu geografikoaren araberako aldaketa linguistikoa izan du helburu. Hau da, hizkuntzaren dialekto, azpidialekto eta tokian tokiko hizketa guztien azterketa sinkronikoa.

Esan daiteke hizkuntz atlasen sasoiak bukatuz doan unean sortu dela Euskal Herriko Hizkuntz Atlas (EHHA) proiektua. Europako hizkuntz zaharrenetarikoa ez du izan orain arte bere atlasik, beste guztiek daukaten unean. Koldo Mitxelenak zioen bezala «La zona de habla vasca... sigue siendo un espacio en blanco, una terra incógnita cerrada a la cartografía lingüística desde la obra de uno de sus precursores, el príncipe Luis Luciano Bonaparte... para darse cuenta de cuál es la situación con que nos enfrentamos, basta con pensar en que el príncipe Bonaparte no es más que uno de los precursores -aunque importante- de la dialectología, mientras que para la dialectología vasca su obra constituye casi una culminación».

Aurreko ia 100 urte horietan ez da, ordea, lo egon euskalaritza. Konta ezinezkoak dira euskararen atlasaren beharra azpimarratuz

mintzo izan direnak 1912an «Cercle d'Etudes Euskariennes» delakoak «emet le voeu qu'un Atlas linguistique du pays basque soit entrepris» esan zuenetik. Era berean proiektua abiadan jartzeko ahalegin edo saioak ere bat baino gehixeago izan dira tarte luze honetan. Egoera hau argi ikusteko berriz K. Mitxelenaren hitzez baliatuko gara: «En realidad, el número de congresos o de reuniones científicas en que se han tomado resoluciones en este sentido resultaría, si alguien se tomara la molestia de hacer el recuento, extraordinariamente elevado».

Arrazoi bat edo beste dela medio negargarriro atzeratuz joan zaigu euskararen atlasa.

Egoera honetaz oharturik Euskaltzaindiak euskararen hizkuntz atlasa egitea bere gain hartu zuen 1983an Markinan burutu zituen dialektologiari buruzko III. jardunaldietan.

Euskaltzaindiak (Frantziako CNRSrekin elkarlanean) gauzatu duen oraingo proiektu hau, ordea, beldur gara, neurri handi baten behintzat, ez ote datorren berant.

Belu diogu, batetik inguruko herrialdeetan hizkuntzalaritzaren arlo honek izan duen hazkundearekin gonbaratzen badugu. Berandu diogu baita, eta hau larriagoa da oraindik, euskara bere baitan eta euskal gizartea aldaketa handiak jasaten ari direlako.

Gauzak eta tresnak laster aldatzen ari dira: beraiekin batera, hitzak, berbak edo eleak ere. Baserritarren munduak ez ezik, gizarte osoak bilakaera «katastrofikoa» ezagutu du teknologiaren eta bizimoduaren aldetik. Lanabesak, kanpoko-lanak, hazkuntza, teknikak, sal-erosketa moduak, harremanak, errotik aldatu dira. Baina bizi dira oraindik aldaketa horietarik gehienak ezagutu dituztenak. Beren ingurumenari buruz daukaten jakitate enpiriko zabala beren ezpainenatik biltzeko garaia amaituz doakigu. Hemen ere balio du esaldi famatu hark dioena: «Agure bat hiltzen denean biblioteca bat erretzen da».

Gauzak aldatzen direnean, bertako mintzairak ere. Tertzioa amaitzen ari zaigu euskara geografikoki atzera joan ez den ere-

muetan bederen tokiko aldaki guztiak biltzeko; ez bait genezake ahantz, bestalde, leku horietan beretan hizkuntza standarra garatzen ari dela neurri handi batez euskal komunikabideen indarrari esker.

Ikusten da orduan, forma zaharren desagertzea eta hizkuntza batuago baten agerpenaren artean epea oso laburra eta hertsia dela. Jadanik berant da. Urte zenbaiten buruko berantegi.

#### *EHHaren berezitasun eta berrikuntzak*

*Galdeketa:* EHHAN euskararen alor desberdinak lantzen dira: lexikoa, morfologia, sintaxia eta fonetika. Lexikoari buruz 2.105 itaun egiten dira (hauetarik 238 herri batzutan bakarrik). Morfologiari buruz 581 galdera dira (hauetarik 321 izen-morfologiaz eta 260 aditzaz). Sintaxiaz 62 eta 37 fonetikari buruzko zuzenezko galdera (beste fenomeno batzu lexikotik aterako dira). Guztira 2.785 itaun.

*Inkesta-puntuak:* Aurreko galdesorta 145 herritan erabili da: Bizkaia eta Gipuzkoan 36na lekutan, Araban baten baino ez, Nafarroan 27tan, Lapurdin 15etan, Nafarroa Beherean 18tan eta Zuberoan 12tan.

Inkestak 1986eko neguan hasi ziren. Lan honetan 7 inkestagile dabilta. Une honetan 100 inkesta baino gehiago daude guztiz bukatuta eta dozenerdi bat baino ez dira oraindik hasi gabeko inkesta-puntuak. Gauzak horrela eta lanek daramaten abiada jarraituz esan daiteke uda amaitzearekin berea egiteko unean izango direla inkestok. Inkesta bera oso luzea da. Herri bakoitzean 30 ordu inguru behar dira inkesta egiteko. Inkesta guztiak grabatu egiten dira. Gero bakartatean kuaderno prestatu batzutara pasatzen da zintan jaso dena. Atlaseko inkesta guztiak amaitzen direnean 4.000 ordu baino gehiago izango dira grabatuta.

Datuen elaboraketa eta kartografia lanak informatikaz baliatuz egingo dira era automatizatu batez, orain arte atlasgintzan eskuz egiten izan dena.

#### *Zertarako hain protektu luzea?*

Hizkuntz atlasak egitea denbora asko behar den lana da.

Atzerrian egin diren ia atlas denek 20 urte baino gehiago behar izan dituzte burutzeko.

Baina behar beharrezkoak dira edozein eremutako ahozko hizkuntzaren egoera jakiteko, nola mintzatzen den jakiteko. Hizkuntza bat mintzatzen den eremuko datu homogeenak izateko bide bakarra da hizkuntza atlasa.

Datu berri multzo aberatsa eskeintzen du atlasak hizkuntza hobeki ezagutzeko, izan dadin fonetika, semantika, sintaxia, e.a. Alor horietan denetan, atlas on bat falta izatea deitoratzen dute espezialista guztiak.

Momentu hau bakarra izango da, hizkuntzaren bilakaeran noiz edo noiz egiten den horietakoa. Eta aurrerantzean, gaur egun oraindik L.L. Bonaparteren lana dugun eran, nahitaezko erreferentzia-puntua bihurtuko den lana, eskeintzen dituen datuak betirako baliagarriak izango direlarik.

#### *Zer biltzen da EHHAn?*

Aurrerago esan da lexikoa, morfologia, sintaxia eta fonetika arloak lantzen direla. Lexikoan izena edo adjetiboa biltzen delarik lexema hutsa bildu nahi da:

ETXE-a  
MENDI-a  
IBAI-a

hau da, guri interesatzen zaiguna lexikoa biltzen dugunean zera da: hitza zein den, deklinabide atzizkiak eta artikulua kenduz gero gelditzen dena. Beste era batez, hiztegietan agertzen den bezala interesatzen zaigu hitza, hutsik. Artikulu edo deklinabide kasuekin sortzen diren fonetikas arazoak beste kapitulu batetan ikertzen dira. Aditza denean partizipioa da interesatzen zaiguna. Lekukoek ematen duten hitza ongi zehazten ahalegintzen gara («aulki» zer den esaterako, edo «jarlekua»: jarteko edozer den edo tresna konkretua...).

Inkesta-metodologiaren beste ezaugarri bat zera dugu: lekukoek beraiek emandakoez gain maiz proposatu egiten zaizkie hitz

batzu bere herrian erabiltzen diren galdetuz. Horrela gertatzen da berari burura etorri ez zaion hitzen bat izatea, arkaismoren bat izatea, edo testuinguru konkretuetan bakarrik erabiltzea. Adibidez «hotsa» bizkaieraren eremu zabalean behintzat autonomoki erabiltzen ez den hitza dugu. Baina hitz-elkarketan zenbait tokitan agertu egiten da: «kanpai-otza» (kanpaiotsa), «zaratotza» (zaratotsa), edo esaldi fosilizatueta: «kanpaiari otza kendu». Horrela lekukoak zer dakien eta zer ez dakien ere neurtzen da hein handi batetan. Ez gara konformatzen lekukoak «dakienaz», hau da, berak bere kabuz eman dituen erantzunez bakarrik. Horrez gain sistematikoki beste hitz batzu proposatzen dizkiogu ia ezagutzen dituen galdetuz.

Kasu batzutan hizkuntza mailak ere agertzen dira, edo eufemismoak eta argota: «kaka egin» pertsona batzuren aurrean ez da esaten «estomagutik librau», «frakak erantzi»... edo horrelako zeozer baino. Edo «guardiazibila» esateko «txakurra» esatea.

Etnografiari toki garrantzitsua eskeintzen diogu, lanabesak direla, sineskerak direla...

Fraseologia ere lantzen da kasu seinalagarrietan. Horrela jakin dugu leku batzutan «doministikun» esaten dena beste batzutan «urtzintz» egin duenari albokoak esaten diona dela. Edo «laratza»-ren inguruan den esaera pila eta sineste multzoa:

laratzean pikoa  
horren barri laratzak jakingo du  
hango laatza utziik joain duk

#### *EHHaren informazio kopurua*

Gorago esan dugu jadanik 4.000 ordu baino gehiago bilduko ditugula zintetan.

Informazio linguistikoaz esan daiteke 10.000 bat hitzetik gora bilduko dugula inkesta-puntu bakoitzean. 1.450.000 hitz baino gehiago EHHA osoan. Sekulan Euskal Herrian bildu ez den materiale ordenatu eta homogeneoa.

*G. Aurrekoetxea / X. Videgain*